ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE SERVICIOS**
ZARAUZKO SANTA KLARA KOMENTUKO EGOITZAREN BIRGAITZE ENERGETIKOKO OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBORAKO LAGUNTZA TEKNIKOA **2025IK200003**		**ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA DIRECCIÓN FACULTATIVA DE LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN ENERGÉTICA DE LA RESIDENCIA DEL CONVENTO DE SANTA CLARA DE ZARAUTZ** **2025IK200003**
1.- AURREKARIAK 1.1.- DESKRIBAPENA 2021. urtetik Zarauzko Udala da Santa Klara komentuaren jabea. Elizak, komentuak eta baratzeek osatutako multzo bat da. Jatorrizko bizitegi-eraikinak eta haren klaustroak osatzen dute monasterioa. Monasterioari erantsita, luzapen-eraikin bat eta eliza daude, eta, elizari erantsita, bizilekuen eraikina. Multzoak eranskinen eta portxe estalien gune asko ditu. Eraikin horiek monasterioa bera osatzen dute, tipologia tradizionalaren arabera. Hego-mendebaldeko ertzean landa-eraikin moduko bat dago, baina berezko monasterioarekin alderatuta guztiz desberdina da tipologian, antzinatasunean eta erabileran. Koro bat ere badago solairuartean. Elizaren barruko eskailera batetik igotzen da bertara. Eraikin guztien artean, multzo arkitektoniko berezia osatzen dute, eta multzo hori jasota dago herriko interes bereziko ondasun higiezinen zerrendan. Erregistroko azalera: 11.737,11m^2. Katastroko erreferentzia: 6792038		**1.- ANTECEDENTES** 1.1.- DESCRIPCIÓN El Ayuntamiento de Zarautz es desde el año 2021 propietario del Convento de Santa Clara. El convento es un conjunto conventual formado por iglesia, convento y huertas. El monasterio está formado por el edificio residencial original con su claustro. Anexado al mismo se ubica un edificio de ampliación, la iglesia y adosado a la iglesia el edificio de residencia., el conjunto dispone de diferentes zonas de anejos y porches cubiertos. Estos edificios forman propiamente el monasterio según su tipología tradicional. En la esquina suroeste existe un edificio de tipo rural anexo al monasterio, pero claramente de diferente tipología, antigüedad y uso al monasterio propiamente dicho. Existe un coro en entreplanta con acceso por una escalera interior de la iglesia. La totalidad de las edificaciones forman un conjunto arquitectónico singular en la localidad y se encuentra incluido en la relación de Bienes Inmuebles de Interés Especial. Superficie registral 11.767,11m2. Referencia catastral; 6792038

Zenbaki finkoa 3062407C		Número fijo 3062407C
Jabetzaren Erregistroko Erreferentzia; Liburukia/Liburua/Orria; 2272/535/158 Finka zenbakia 2008/4. inskripzioa.		Referencia Registro de la Propiedad; Tomo/Libro/Folio; 2272/535/158 Finca número 2008/inscripción 4ª.
1.2. TMA/178/2022 AGINDUA, TOKI-ERAKUNDEEI ERAIKIN PUBLIKOAK BIRGAITZEKO LAGUNTZAK EMATEKO PROGRAMAREN DEIALDIA (PIREP; 2022KO MARTXOAREN 11KO BOE, 60 zk.). C215PL/22/01555 ESPEDIENTEA.		**1.2. CONVOCATORIA DEL PROGRAMA DE AYUDAS A ENTIDADES LOCALES PARA LA REHABILITACIÓN DE EDIFICIOS PÚBLICOS (PIREP), ORDEN TMA/178/2022, (BOE nº 60, 11 DE MARZO DE 2022). EXPEDIENTE C215PL/22/01555.**
2022an, Zarauzko Udalak dirulaguntza-eskaera bat egin zuen titulartasun publikoko eraikinak berritzeko, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. Horretarako, erabilerak definitu ziren, eta 1.4 puntuan adieraziko dokumentuak idatzi ziren.		Durante el 2022 el Ayuntamiento de Zarautz realizó la solicitud para la concesión de ayudas para la rehabilitación de edificios de titularidad pública en el marco de Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana. Para ello se definieron los usos y se redactaron los documentos reflejados en el punto 1.4.
Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak, 2023ko martxoaren 31n emandako behin-behineko Ebazpenari jarraikiz, 2 Lerroko onuradun gisa jarri zuen *Santa Klara Komentua Ekipamendu Soziokulturalerako Birgaitzeko eta Berritzeko Proiektua.*		El Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, en virtud de Resolución provisional de dictada con fecha 31 de marzo de 2023 acordó establecer como beneficiario de Línea 2 el *Proyecto de Rehabilitación y Reforma del Convento de Santa Clara para Equipamiento Socio Cultural*.
Nahitaez bete behar dira Deialdi horrek 2 Lerroko jardueretarako ezartzen dituen betebeharrak.		Serán de obligado cumplimiento las obligaciones que fija dicha convocatoria de las actuaciones de la citada línea 2.
Aipatutako aginduaren helburua da titulartasun publikoko eraikinak birgaitzea, Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 27ko akordioaren bidez onartutako SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANean jarritako eta TOKI-ERAKUNDEEI ERAIKIN PUBLIKOAK BIRGAITZEKO		La citada Orden tiene por objeto la rehabilitación de edificios de titularidad pública con la finalidad de garantizar el cumplimiento de los requisitos establecidos por el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR) aprobado por el Acuerdo del Consejo de Ministros de 27 de abril

LAGUNTZAK EMATEKO PROGRAMAN (PIREP) zehaztutako baldintzak betetzen direla bermatzeko. Gainera, Ministerioaren politiken koherentziarekin bat etorriz, finantziazioaren xede diren jarduerek izaera integratua izango dute, Espainiako Hiri Agendak definitutako zentzuan. Eta Europako Bauhaus Berrian aurreikusitako iraunkortasun, inklusio eta kalitate estetikoaren irizpideak beteko ditu.		de 2021 y detallados en el Programa de Impulso a la Rehabilitación de Edificios Públicos (PIREP). Asimismo, y de conformidad con la coherencia de las políticas del Ministerio, las actuaciones objeto de financiación deberán tener un carácter integrado, en el sentido definido por la Agenda Urbana Española (AUE) Y responder a los criterios de sostenibilidad, inclusión y calidad estética previstos por la Nueva Bauhaus Europea.
1.3. Ondare historiko eta arkitektonikoaren katalogoa, ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORREKOA (2008-03-5eko GAO, 46 zk.). KOMENTUAREN MONUMENTU MULTZOA KATALOGOAN SARTUTA DAGO, ETA USTEZKO ARKEOLOGIA-ZONA GISA SAILKATUTA.		**1.3. Catálogo del patrimonio histórico-arquitectónico del PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE ZARAUTZ (BOG, Nº 46, 5-03-2008) EN LA QUE SE INCLUYE EL CONJUNTO DEL CONVENTO Y ESTÁ DECLARADO COMO ZONA DE PRESUNCIÓN ARQUEOLÓGICA.**
Klaratar Frantziskotarren komentua eta Santa Klara elizaren multzoa interes historiko eta arkitektonikoko monumentu probintziala zela adierazi zen, 1964ko urtarrilaren 17ko Aginduaren arabera (interes historiko-arkitektonikoko monumentu probintzial izendatzekoa; 1964ko otsailaren 29ko BOE).		El Conjunto del Convento de las Clarisas Franciscanas e Iglesia de Santa Clara fue declarado monumento provincial de interés histórico-artístico en virtud de Orden de 17 de enero de 1964 por la que se declaran monumentos provinciales de interés histórico-artístico (BOE de 29 de febrero de 1964).
Horregatik guztiagatik, eta Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean adierazitakoan oinarrituta, beharrezkoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren baimena edukitzea, egin nahi diren jarduerak egiteko.		Por todo ello y en base a lo indicado en la ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco será necesario la autorización del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa sobre las actuaciones que se quieren acometer.
1.4. ORAIN ARTE EGIDAKO DOKUMENTUAK		**1.4. DOCUMENTACIÓN DESARROLLADA HASTA LA FECHA**
Lizitazioan aurkeztuko diren taldeek ondorengo dokumentazioa eduki ahalko dute:		Los equipos que se presenten a la licitación pueden disponer de la siguiente documentación;

a.- Santa Klara monasterioko erlijio-komentua birgaitzeko eta eraberritzeko **oinarrizko proiektua**, ekipamendu soziokulturalerako erabiltzeko. b.- Eraikinaren **kontserbazio-egoeraren txostena.** c.- **Egurrezko egituraren kontserbazio-egoerari buruzko txostena** e.- Eraikinak egungo egoeran daukan **eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria**. d- Proposatutako berrikuntzaren ondoren eraikinak izango duen **eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria.** **f.- Exekuzio proiektu** "ZARAUZKO SANTA KLARA KOMENTUKO EGOITZAREN BIRGAITZE ENERGETIKOA" Dokumentazio hori 1. eranskinean sartu da. Kontratua formalizatu eta gero, udal teknikariek dokumentazioa entregatuko dute formatu digitalean— eta titulartasun publikoko eraikinak birgaitzeko laguntzetarako espedienteari buruzko dokumentazio guztia (Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruko laguntzak). **2.- KONTRATUAREN XEDEA** Xedea da laguntza teknikoaren zerbitzua kontratatzea bi lan hauetarako: ZARAUZKO SANTA KLARA KOMENTUKO EGOITZAREN BIRGAITZE ENERGETIKOKO OBREN zuzendaritza fakultatiborako (obra-zuzendaritza eta obra-gauzatzeko zuzendaritza).		a.- **Proyecto Básico** de Rehabilitación y Reforma del Convento de Religiosas del Monasterio de Santa Clara para destinarlo a Uso de Equipamiento Socio Cultural. b.- **Informe sobre el estado de conservación** del edificio. c.- **Informe sobre el estado de conservación de estructura de madera** **e.- Certificado de eficiencia energética** del edificio existente en su estado actual. d.- **Certificado de eficiencia energética** del edificio alcanzado tras la reforma propuesta. f.- Proyecto de ejecución "REHABILITACIÓN ENERGÉTICA DE LA RESIDENCIA DEL CONVENTO DE SANTA CLARA DE ZARAUTZ" Esta documentación se adjunta en el anexo nº 1. Una vez se formalice el contrato, los técnicos municipales harán entrega de la documentación en formato digital, así como toda la documentación relativa al expediente de ayudas para la rehabilitación de edificios de titularidad pública en el marco de Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana. **2.- OBJETO DEL CONTRATO** El objeto es la contratación de la prestación del servicio de asistencia técnica para la dirección facultativa (dirección de obra y dirección de la ejecución material) de las obras de REHABILITACIÓN ENERGÉTICA DE LA RESIDENCIA DEL CONVENTO DE SANTA CLARA DE ZARAUTZ

Kontratu honetan ez da sartzen gauzatze-faseko segurtasun arloaren koordinazioa. Lanak honako hauen arabera egingo dira: - Exekuzio proiektua "ZARAUZKO SANTA KLARA KOMENTUKO EGOITZAREN BIRGAITZE ENERGETIKOA" - Araudi aplikagarria. - Obra-kontratua adjudikatzeko jarriko diren baldintzak. - Kontratazio-organoak kontratuaren gauzatze-epean ematen dituen agindu osagarriak. - TMA/178/202 Agindutik eratorritako betebehar eta baldintzak. - "Ondare historiko eta arkitektonikoa" izatetik eratorritako baldintza eta betebeharrak. - Obren gehieneko epea Exekuzio Proiektuan ezarritakoa izango da, 28 astekoa. Kontratuan jarduera hauek sartuko dira, besteak beste: - Gauzatzearen kalitatearen kontrola - Hondakinen kudeaketaren kontrola - Plangintzaren segimendua - Aurrekontuaren segimendua - Hirugarrenekiko harremanak - Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legean adierazitakoak. - Obraren segimendua eta justifikazioa, honen arabera: TMA/178/2022 Agindua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez oinarri arautzaile batzuk onartzen		No se incluye en el presente contrato la coordinación en materia de seguridad en fase de ejecución. Los trabajos se realizarán de acuerdo a: - Proyecto de ejecución "REHABILITACIÓN ENERGÉTICA DE LA RESIDENCIA DEL CONVENTO DE SANTA CLARA DE ZARAUTZ" - La normativa de aplicación. - Las condiciones en las que se adjudique el contrato de obra. - Las instrucciones complementarias que durante la ejecución de lo contrato sean dictadas por el órgano de contratación. - Los requisitos y condiciones específicos derivados de la Orden TMA/178/202. - Los requisitos y condiciones derivados del carácter de "Patrimonio histórico-arquitectónico". - El plazo máximo de las obras será lo establecido en el Proyecto de Ejecución, 28 semanas. El contrato incluirá, entre otras, las siguientes actividades: - Control de Calidad de Ejecución. - Control de la Gestión de residuos. - Seguimiento de la Planificación. - Seguimiento del Presupuesto. - Relaciones con terceros. - Señaladas en el Ley de Ordenación de la Edificación. - Seguimiento de la obra y justificación según la Orden TMA/178/2022 de 28 de febrero por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de ayudas

diren titulartasun publikoko eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko eta eskabideak norgehiagoka-prozedura bidez aurkezteko deialdia egiteko; eta hori guztia, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.		para la rehabilitación de edificios de titularidad pública y la convocatoria para la presentación de solicitudes por el procedimiento de concurrencia competitiva en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
3.- BALDINTZA PROFESIONALAK, FUNTZIOAK, ESKUMENAK ETA BETEBEHARRAK		**3.- REQUISITOS PROFESIONALES, FUNCIONES, COMPETENCIAS Y OBLIGACIONES**
obra zuzendari eta lantaldearen koordinatzaile den pertsonak dagokion titulazioa eduki beharko du EALaren arabera. Bera arduratuko da kontratua ondo gauzatzeaz, kudeatzeaz eta gainbegiratzeaz, plegu hauetan deskribatutako baldintzetan oinarrituta. Gainera, adjudikaziodunaren ordezkaria izango da, eta, ondorioz, baita aldeen arteko komunikazio formalerako bidea ere.		El director/a de obra y coordinador del equipo, deberá contar con la titulación correspondiente, según la LOE, será la responsable de la correcta ejecución y de la gestión y supervisión del contrato en base a las condiciones descritas en este pliego. Será además la representante de la adjudicataria y, en consecuencia, cauce de comunicación formal entre las partes.
Lantaldea honako hauek osatuko dute gutxienez:		El equipo estará constituido, como mínimo, por:
- Lantaldea koordinatzeaz eta obraren zuzendaritzaz arduratuko den pertsona: Titulazioa: arkitektura Aditua izango da eraikinen birgaitze energetikoetan.		- Director de las obras y persona coordinadora del equipo: Titulación arquitectura Experto/a en rehabilitaciones energéticas de edificios
- Ondare arkitektoniko katalogatuan egin beharreko jarduketetan aditua den pertsona (izan daiteke lantaldearen arduradun eta koordinatzailea) Titulazioa: arkitektura Aditua izango da ondare arkitektoniko katalogatuan.		- Persona experta en actuaciones en patrimonio arquitectónico catalogado: (podrá ser la persona responsable y coordinadora del equipo) Titulación arquitectura Experto/a en actuaciones en patrimonio arquitectónico catalogado.

- Obren gauzatze materialaren zuzendaritzaren arduraduna: Titulazioa: arkitektura teknikoa edo baliokidea		- Persona responsable de la dirección de ejecución material de la obra: Titulación arquitectura técnica o equivalente
- Egurrezko egituretan aditua den pertsona: Titulazioa: arkitektura teknikoa edo ingeniaritza; bi kasuetan prestakuntza osagarria izango dute (birgaitze gaietako masterraren edo doktoradutzaren baliokidea).		- Persona experta en estructuras de madera: Titulación en arquitectura técnica o ingeniería con formación complementaria en ambos casos equivalente a master o doctorado en materia de restauración.
- Instalazioetan eta instalazioen zuzendaritzan aditua den pertsona: Titulazioa: industria-ingeniaritza edo baliokidea.		- Persona experta en instalaciones y director/a de instalaciones: Titulación en ingeniería industrial o equivalente.
Nortasun juridikoaren kasuan, teknikari fakultatibo arduradunak identifikatuko dira.		En el caso de personalidad jurídica se identificará al personal técnico facultativo responsable.
Zuzendaritza fakultatiboaren barruan, Obra Zuzendaritzak zuzenduko ditu obraren alderdi tekniko, estetiko, urbanistiko eta ingurumenekoak, obra definitzen duen proiektuarekin, nahitaezko baimenekin eta kontratuaren baldintzekin bat etorriz; horrela ziurtatuko du obra hori proposatutako helburuari egokitzen zaiola. Arau hauetan adierazitako funtzioak izango ditu, oro har: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina, plegu hauek, Eraikingintzaren Antolamenduari buruzko Legea, Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta gainerako arau aplikagarriak.		El/la director/a de obra, dentro de la dirección facultativa, dirigirá el desarrollo de la obra en los aspectos técnicos, estéticos, urbanísticos y medioambientales, de conformidad con el proyecto que la define, las autorizaciones preceptivas, las condiciones del contrato y los imprevistos que surjan, con el objeto de asegurar su adecuación al fin propuesto. Sus funciones en general son las indicadas en la Ley de Contratos del Sector Público, presentes pliegos, la Ley de Ordenación de la Edificación, el Código Técnico de la Edificación y demás disposiciones que resulten de aplicación.
Eraikuntzen Antolamenduaren Legearen 17. artikuluaren 7. atalaren arabera, bere gain		Conforme al apartado 7 del artículo 17 de la Ley de Ordenación de la Edificación, asumirá las

hartuko ditu proiektuaren omisioek, hutsuneek edo akatsek eragindako erantzukizunak.		responsabilidades derivadas de las omisiones, deficiencias o imperfecciones del proyecto.
Arkitektura-ondare katalogatuko jarduketetan aditua den pertsonak, zuzendaritza fakultatiboaren barruan, obraren garapenaren zuzendaritzan lagunduko du, babesaren arloko alderdi teknikoetan, estetikoetan eta hirigintzakoetan —hura definitzen duen proiektuaren, nahitaezko baimenen eta kontratuaren baldintzen arabera—, proposatutako helburura egokitzen dela ziurtatzeko.		La persona experta en actuaciones en patrimonio arquitectónico catalogado, dentro de la dirección facultativa, colaborará en la dirección del desarrollo de la obra en los aspectos técnicos, estéticos, urbanísticos en materia de protección, de conformidad con el proyecto que la define, las autorizaciones preceptivas y las condiciones del contrato, con el objeto de asegurar su adecuación al fin propuesto.
Obra-gauzatzearen zuzendaria agente bat da, eta Zuzendaritza Fakultatiboaren kidea. Zuzendaritza fakultatiboaren barruan funtzio tekniko bat dauka: obraren gauzatze materiala zuzentzea eta eraikitakoaren eraikuntza eta kalitatea kuantitatiboki eta kualitatiboki kontrolatzea; helburua da lanok ahalik eta hobekien erantzutea Administrazioaren interesei. Arau hauetan adierazitako funtzioak izango ditu, oro har: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina, plegu hauek, Eraikingintzaren Antolamenduari buruzko Legea, Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta gainerako arau aplikagarriak.		El/la Director/a de Ejecución de obra, dentro de la Dirección Facultativa, es el agente que, formando parte de la dirección facultativa, asume la función técnica de dirigir la ejecución material de la obra y de controlar cualitativa y cuantitativamente la construcción y la calidad de lo edificado, a fin de que los trabajos sirvan de la mejor forma a los intereses de la Administración. Sus funciones en general son las indicadas en la Ley de Contratos del Sector Público, los presentes pliegos, la Ley de Ordenación de la Edificación, el Código Técnico de la Edificación y demás disposiciones que resulten de aplicación.
Zurezko egituretan aditua den pertsonak, zuzendaritza fakultatiboaren barruan, obraren garapenaren zuzendaritzan lagunduko du —hura definitzen duen proiektuaren, nahitaezko baimenen eta kontratuaren baldintzen arabera— proposatutako helburura egokitzen dela ziurtatzeko.		La persona experta en estructuras de madera, dentro de la dirección facultativa, colaborará en la dirección del desarrollo de la obra en los aspectos que correspondan, de conformidad con el proyecto que la define, las autorizaciones preceptivas y las condiciones del contrato, con el objeto de asegurar su adecuación al fin propuesto.
Zuzendaritza Fakultatiboaren barruan, hauek izango dira Instalazioen zuzendariaren		El/la directora/a de las instalaciones, dentro de la Dirección Facultativa, dirigirá la ejecución material

zereginak: instalazioen gauzatze materiala zuzentzea, eta instalazioen gauzatzea eta kalitatea kualitatiboki eta kuantitatiboki kontrolatzea; helburua da lanok ahalik eta hobekien erantzutea Administrazioaren interesei. Arau hauetan adierazitako funtzioak izango ditu, oro har: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina, plegu hauek, Eraikingintzaren Antolamenduari buruzko Legea, Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta gainerako arau aplikagarriak. Zuinketa kontrolatuko du, bai eta instalazio-proiektuarekin egokitzen den ere. Obran egiten dituen bisitetan, instalazioak gauzatu bitartean gertatutako ustekabeak konpondu beharko ditu, eta AGINDUEN ETA ASISTENTZIEN LIBURUAn hainbat jarraibide jasoko ditu proiektua ondo interpretatzeko. Instalazioen egoerak eragindako aldaketak eta zuzenketak proiektuan sartuko ditu. Beti adostasuna egongo da zuzendaritza fakultatiboaren eta sustatzailearen artean. Gainera, berak sinatuko ditu instalazioen zuinketa-aktak eta instalazio bakoitzaren obra-zuzendaritzaren azken ziurtagiria, horiek legeztatzeko; eta oniritzia emango die ziurtagiri partzialei eta obrako azken likidazioari. Eta, azkenik, instalazioak legeztatzeko egindako obraren dokumentazioa idatzi eta sinatuko du, eta, gainera, behar diren dokumentuak dagozkien erakundeetan erregistratuko ditu, haiek baimentzeko.		de las instalaciones, controlará cualitativa y cuantitativamente la ejecución y la calidad de las instalaciones, a fin de que los trabajos sirvan de la mejor forma a los intereses de la Administración. Sus funciones en general son las indicadas en la Ley de Contratos del Sector Público, los presentes pliegos, la Ley de Ordenación de la Edificación, el Código Técnico de la Edificación y demás disposiciones que resulten de aplicación. Deberá de realizar el control del replanteo y adecuación al proyecto de instalaciones. En las visitas a obra deberá resolver los posibles imprevistos durante la ejecución de las instalaciones y reflejar en el LIBRO DE ÓRDENES Y ASISTENCIAS las instrucciones para interpretar el proyecto correctamente. Realizar los cambios o rectificaciones en el proyecto que vengan como consecuencia del estado de las instalaciones. Siempre en consenso entre la dirección facultativa y el promotor. Asimismo, deberá firmar las diferentes actas de replanteo instalaciones y el certificado final de dirección de obra de cada instalación para la legalización de las mismas, dará el visto bueno de las certificaciones parciales y la liquidación final de obra y finalmente. Además de Redactar y firmar la documentación requerida de la obra ejecutada para la legalización de las instalaciones, deberá registrar de los documentos necesarios ante los Organismos correspondientes para su autorización.
Laguntza teknikoko taldeak, proiektuaz gain, kontuan izango ditu obren segurtasun eta osasunari buruzko legedia eta indarrean diren gainerako xedapenak.		El equipo de asistencia técnica tendrá en cuenta, además del Proyecto, la legislación relativa a Seguridad y Salud en las obras y restantes disposiciones vigentes.
Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileari jakinaraziko dio obran aurreikusitako		Deberá de comunicar al Coordinador de Seguridad y Salud cualquier decisión y/o modificación que

segurtasun-neurriei eragiten dien edozein erabaki eta/edo aldaketa.	afecte a las medidas de seguridad previstas en la obra.
Zuzendaritza Fakultatiboa izango da bere zereginetan hartzen dituen erabakien eta omisioen erantzulea.	La Dirección Facultativa, será el responsable de sus decisiones y omisiones en el ejercicio de sus funciones.
Kontratuko dokumentuetan kalitate, prezio edo epeei buruzko baldintzetan edozein aldaketa dakarren erabakia hartu aurretik, Zuzendaritza Fakultatiboak kontsulta egin beharko die udal teknikariei.	La Dirección Facultativa consultará previamente a los técnicos municipales cualquier decisión que implique modificación de cualquier tipo de las condiciones de calidad, precio o plazo, establecidas en los distintos documentos contractuales.
4.- OBRA ZUZENDARITZA LANEN IRISMENA	**4.- ALCANCE DE LOS TRABAJOS DE DIRECCION DE OBRA**
Adjudikazioduna izango da, ondorio guztietarako, obren zuzendaritza fakultatiboaren agentea. Bere betebeharrak honako araudietan jasotakoak dira: Eraikuntzaren Antolamendu Legea (12 eta 13 artikuluak); Eraikingintzaren Kode Teknikoa; Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea; eta gainerako araudi aplikagarria.	La adjudicataria ostentará, a todos los efectos, el papel de agente de la dirección facultativa de las obras. Sus obligaciones son las señaladas en los artículos 12 y 13 de la Ley de Ordenación de la Edificación, el Código Técnico de la Edificación, la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, del 8 noviembre y demás normativa que le sea de aplicación.
Araudiak inplizituki dakarren guztiaz gain, kontuan izango du jarraian zehaztutakoa ere:	Contemplará, además de todo lo que le venga implícito por la normativa que lo regula, lo especificado a continuación:
- Obrako zuzendariak koordinatuko ditu instalazioen proiektu partzialak zuzentzen dituzten teknikariak, bai eta sistema desberdinen integrazioa ere.	- La dirección de obra coordinará al personal técnico que, en su caso, dirija proyectos parciales de instalaciones obras, así como la integración de los diferentes sistemas.
- Fase desberdinak egiten diren bitartean, horiek bukatu ondoren eta obra-kontratua likidatu arte, obren	- Durante la realización de las distintas fases, deberá realizar cuantos informes y documentos le sean solicitados durante el

garapenean eskatzen zaizkion txosten eta dokumentu guztiak egin beharko ditu.		desarrollo de las obras, así como después de concluidas éstas, hasta la liquidación del contrato de obra
- Behar den dokumentazioa egin, bai proiektu fasean bai obra fasean, honen arabera: TMA/178/2022 Agindua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez oinarri arautzaile batzuk onartzen diren titulartasun publikoko eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko eta eskabideak norgehiagoka-prozedura bidez aurkezteko deialdia egiteko; eta hori guztia, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.		- Elaborar la documentación necesaria, tanto en fase de proyecto como en fase de obra, según la Orden TMA/178/2022 de 28 de febrero por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de ayudas para la rehabilitación de edificios de titularidad pública y la convocatoria para la presentación de solicitudes por el procedimiento de concurrencia competitiva en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
- BIM betekizunak: Esleipendunak proiektu-fasean sortutako BIM eredu bat izango du, obra-fasean eta mantentze- eta erabilera-fasean jarraipena izan dezan. Ereduaren definizio grafikoaren eta eduki ez-grafikoaren maila berari eutsiko zaio. Plegu honen I. eranskinean ezarritakoa beteko da Obrak irauten duen bitartean BIM eredua eguneratuta mantentzeaz arduratuko da, eta plegu honen I. eranskinean ezarritakoa beteko du.		- Requisitos BIM: La adjudicataria dispondrá de un modelo BIM generado en fase de proyecto y que servirá para que tenga continuidad en fase de obra y fase de mantenimiento y uso. Se mantendrá el mismo nivel de definición gráfico y de contenido no gráfico del modelo. Será el responsable de mantener el modelo BIM actualizado durante toda la duración de la obra y cumplirá con lo establecido en el Anexo I del presente pliego.
Beharrezkoa bada, adjudikaziodunak lanen egoerari buruzko azalpenak emango ditu. Gainera, hura idazteko eta tramitatzeko beharrezkoak diren bilera, bisita eta gestio guztietara joango da. Adjudikaziodunak idatziko ditu bilera horien aktak.		En caso necesario, la adjudicataria hará exposiciones sobre el estado de los trabajos. Asimismo, asistirá cuantas reuniones, visitas y gestiones sean precisas para su redacción y tramitación. La adjudicataria redactará las actas correspondientes a dichas reuniones.
Desplazamendu eta dieta gastu guztiak kontratatutako zerbitzuaren prezioan sartuta daudela ulertuko da.		Todos los gastos de desplazamientos y dietas correspondientes se entenderán incluidos en el precio del servicio contratado.

Obrak egiten hasi aurretik:		Antes del inicio de la obra:
- Laguntza teknikoa adjudikatu ondoren, dagokion elkargo ofizialean formalizatu eta izenpetuko du enkargu profesionala.		- Una vez adjudicada la asistencia técnica, formalizar y suscribir el encargo profesional en el correspondiente colegio profesional.
- Adjudikaziodunak Erantzukizun Zibileko Aseguru bat sinatu beharko du. Baldintza hori aseguratzaileak egindako ziurtagiri baten bidez egiaztatuko da. Ziurtagiri horretan, aseguratutako zenbatekoak eta arriskuak adieraziko dira, bai eta aseguruaren epe-muga ere.		- La adjudicataria quedará obligada a suscribir un Seguro responsabilidad civil. La acreditación de este requisito se efectuará por medio de certificado expedido por la aseguradora en el que conste los importes y riesgos asegurados y la fecha de vencimiento del seguro.
- Dokumentazio teknikoa obraren garapenerako egokia den egiaztatuko du.		- Verificar la idoneidad de la documentación técnica para el desarrollo de la obra.
- Obren enpresa adjudikaziodunak Lan Programari buruzko txostena aurkeztuko du, kontratazio-organoak onar dezan; aldaketa batzuk sartzea edo zenbait preskripzio betetzea proposa dezake, betiere obra-kontratuaren klausuletan adierazitakoa urratzen ez badu.		- Informe sobre el Programa de Trabajo presentado por la adjudicataria de las obras para su aprobación por el órgano de contratación, pudiendo proponer la introducción de modificaciones o el cumplimiento de determinadas prescripciones, siempre que no contravengan las cláusulas del contrato de obra.
- Hondakinen Kudeaketa Planaren onespenaren txostena egingo du, kontratazio-organoak onar dezan.		- Informe de aprobación del Plan de Gestión de residuos para su aceptación por el órgano de contratación.
- Lanerako zentro bat irekita badagoela frogatuko du.		- Verificar la existencia de apertura del centro de trabajo.

- Obran, SUBKONTRATAZIOEN LIBURUA badagoela egiaztatuko du.		- Verificar la existencia en obra del LIBRO DE SUBCONTRATACIÓN.
- AGINDUEN LIBURUA eskatu eta obran edukiko du.		- Solicitar y disponer en obra del LIBRO DE ÓRDENES.
- Obra-hasierako Zuinketaren Egiaztapen Akta egingo du, Udalak emandako ereduaren arabera.		- Realizar el Acta de comprobación del Replanteo de Inicio de las Obras, conforme al modelo que aportará el Ayuntamiento.
- BIM betekizunak eranskinaren arabera		- Requisitos BIM según el anexo
- Obra gauzatzean inpaktu akustikoari buruzko azterlana egitea.		- Realización del Estudio de Impacto acústico de la obra.
<u>Obrak egiten diren bitartean</u>		<u>Durante la ejecución de la obra</u>
- Udal teknikarien eta obren adjudikaziodunaren arteko harreman teknikoak Obra Zuzendaritzaren bitartez bideratuko dira. Kontratistak egin nahi dituen iradokizun edo erreklamazio guztiak Zuzendaritza Fakultatiboak idatzitako txosten batekin helaraziko dira.		- Las relaciones técnicas, entre los técnicos municipales y la adjudicataria de las obras, serán encauzadas a través de la Dirección de Obra. Las sugerencias o reclamaciones que el contratista quiera hacer deberán ir siempre acompañadas de un informe redactado por la dirección facultativa.
- Lantalde tekniko fakultatiboak gutxienez bilera bat egin beharko du, nahitaez, Udaleko ordezkariekin, astean behin; eta obrara joango da, obra ondo egiteko behar den eta eskatzen zaion guztietan. Asteko bilerarako, egun eta ordu jakin bat adostuko da. Egindako bileren eta bisiten akta egingo da.		- El equipo técnico facultativo realizará, al menos, una reunión obligatoria con el personal representante del Ayuntamiento una vez a la semana, y asistirá a la obra cuantas veces sea necesario para la correcta ejecución de la misma y siempre que sea requerido para ello. Se acordarán un día y hora concretos para la reunión semanal. Se levantará acta de las reuniones y de las visitas realizadas.
Aktan jasota geratuko dira hartzen diren erabakiak edo aginduak, egindako bisiten		Deberá reflejarse las decisiones u órdenes que se adoptasen, el contenido y resultado

edukia eta emaitza, egiten diren bilerak eta lan-saioak, eta taldea obran egotearen justifikazioa. Obraren zuzendaritza fakultatiboak idatzi beharko ditu akta horiek.		de las visitas realizadas, reuniones y sesiones de trabajo que se realicen, así como la justificación de la presencia del equipo en obra. La Dirección Facultativa de la obra será la encargada de redactar dichas actas.
- Lanen Programa eta, ondorioz, gauzatze-epea betetzen diren ikusteko segimendua egingo da, eta idatziz justifikatuko dira obren garapenean eta bukaeran gertatutako atzerapenak. Segimendua egingo da ikusteko ea gauzatze-epeak nola betetzen ari diren (onartutako lan programaren arabera), eta, desbideratzeak egonez gero, horiek konpontzeko behar diren aginduak emango zaizkio kontratistari. Kontratuaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean, enpresa kontratistak eguneratu egin beharko du Lanen Programa, eta Administrazioak emandako aginduen arabera finkatu edo eguneratu beharko du. Obra Zuzendaritzak ere, beharrezkoa iruditzen zaionean, aukera izango du obraren zati desberdinei buruzko azalpenak, gauzatze-plan xehatua edo plano edo kalkulu osagarriak eskatzeko, obrak egin aurretik eta onartuak izan daitezen; baldintza hori gabe ezin izango dira obrak egin. Obra-zuzendaritzak txosten bat egingo du hilero, Laneko Programaren jarraipenari buruz.		- Seguimiento del cumplimiento del Programa de Trabajos y, por tanto, el plazo de ejecución, así como la justificación escrita de los retrasos que pudieran darse en el desarrollo y terminación de las mismas. Seguimiento de los plazos de ejecución en relación al programa de trabajo aprobado, dando al contratista instrucciones necesarias para corregir eventuales desviaciones. El Programa de Trabajos deberá actualizarse por la empresa contratista cada vez que se modifiquen las condiciones contractuales, procediendo a la fijación o actualización y puesta al día del mismo conforme a las instrucciones que recibas por parte de los técnicos municipales. La dirección de obra podrá, asimismo, cuando lo crea necesario, solicitar aclaraciones sobre las distintas partes de la obra, plan detallado de ejecución o realización de planos y cálculos suplementarios, antes de la ejecución de las mismas y para su aprobación, sin cuyo requisito no podrán llevarse a cabo. La Dirección de obra emitirá un informe mensual sobre el seguimiento del Programa de Trabajo
- Kalitate Kontrolaren Programaren segimendua egingo du.		- El seguimiento del Programa de Control de Calidad.

- Obran sortzen diren gorabeherak konponduko ditu, eta AGINDUEN ETA ASISTENTZIEN LIBURUAn idatziko ditu proiektua ondo interpretatzeko behar diren aginduak.	- Resolver las contingencias que se produzcan en la obra y consignar en el LIBRO DE ÓRDENES Y ASISTENCIAS las instrucciones precisas para la correcta interpretación del proyecto.
- Sustatzaileak hala eskatuta edo haren adostasunarekin, proiektuan balizko aldaketak egingo dira, obren martxak hala eskatzen duelako, betiere proiektuaren idazketan aurreikusi eta jasotako arauetara egokitzen badira aldaketok. Aldaketa horietan teknikoki justifikatuta geratuko dira hartutako irtenbideak, araudi tekniko aplikagarriak eskatutako zehaztapenen arabera, eta organo eskudunen oniritzia edo adostasuna edukiko dute.	- Elaborar, a requerimiento del promotor o con su conformidad, eventuales modificaciones del proyecto, que vengan exigidas por la marcha de la obra siempre que las mismas se adapten a las disposiciones normativas contempladas y observadas en la redacción del proyecto. Estas modificaciones deberán quedar justificadas técnicamente las soluciones adoptadas de acuerdo con las especificaciones requeridas por la normativa técnica aplicable y contar con el visto bueno o aceptación de los órganos competentes.
- Obraren Zuzendaritza Fakultatiboaren ustez proiektua aldatu egin behar bada, kontratazio-organoaren baimena jaso beharko du dagokion espedienteari hasiera emateko (Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoaren arabera).	- Cuando la Dirección facultativa de la obra considere necesaria una modificación del proyecto, conforme a lo señalado en la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, del 8 noviembre, recabará del órgano de contratación autorización para iniciar el correspondiente expediente.
- Obra eta instalazioen gauzatze materiala agindu eta zuzenduko du, horien kontrol praktikoa zaindu, eta lanak antolatu (horiek definitzen dituen proiektuaren eta eraikuntza onaren arau eta erregelen arabera).	- Ordenar y dirigir la ejecución material de las obras e instalaciones, cuidando de su control práctico y organizando los trabajos de acuerdo con el proyecto que las define, con las normas y reglas de la buena construcción.
- Erabiliko diren materialak, dosifikazioak eta nahasketak ikuskatuko ditu, eta onartuak izateko behar diren froga, azterketa eta egokitasun-dokumentuak	- Inspeccionar los materiales a emplear, dosificaciones y mezclas, exigiendo las comprobaciones, análisis necesarios y

eskatuko ditu, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak, Eraikingintzaren Kode Teknikoa onartzen duenak, 7. artikuluan jarritako Kontrol Planarekin eta kontrolekin bat etorrita.	documentos de idoneidad precisos para su aceptación, según el Plan de Control y los controles establecidos en el artículo 7 dl RD 314/2006, de 17 de marzo, por el que se aprueba el Código Técnico de la Edificación.
- Obrak, gauzatzea eta materialen erabilera, behin-behineko instalazioak, eraikuntzarako bitarteko lagungarriak eta babes-sistemak ondo egiten diren zainduko du.	- Vigilar el correcto desarrollo de las obras, la ejecución y utilización de los materiales, instalaciones provisionales, los medios auxiliares de las construcción y sistemas de protección.
- Obraren unitate bakoitza nola egiten den eta nola jartzen den kontrolatuko du, eta eraikuntza-elementuen neurriak eta antolaketa egokiak direla egiaztatu.	- Controlar la elaboración y puesta en obra de cada una de sus unidades comprobando las dimensiones y correcta disposición de los elementos constructivos.
- Egindako obra-unitateak neurtu eta horien lotura balioztatuak egingo ditu (horiek definitzen dituzten proiektuan eta dokumentazioan jarritako baldintzekin bat etorrita), bai eta obran erabiliko diren materialen lotura kuantitatiboak ere.	- Medir las unidades de obra ejecutadas y confeccionar las relaciones valoradas de las mismas, de acuerdo con las condiciones establecidas en el proyecto y documentación que las define, así como las relaciones cuantitativas de los materiales a emplear en obra.
- Adjudikaziodunak kalitatearen kontrolean dituen betebeharren kontrola eta segimendua egingo du.	- Control y seguimiento de las obligaciones que en materia de control de calidad tiene la adjudicataria de la obra.
- DNSH printzipioa (ingurumenari kalte nabarmenik ez eragitekoa) betetzen dela zaintzea, 2020/852 (EB) Erregelamenduaren eta aplikatu beharreko araudiaren arabera. Horretarako, obrak egiten diren	- Velar por el cumplimiento del principio DNSH (De no Causar perjuicio significativo al medio ambiente), conforme al Reglamento (UE) 2020/852 y a la normativa aplicable. Para ello, durante la ejecución de las obras se deberá:

bitartean, honako hauek egin beharko dira: - Material eta eraikuntza-soluzio jasangarrien erabilera egiaztatzea - Jarduerek ingurumen-inpaktu esanguratsurik sortzen ez dutela gainbegiratzea - DNSH printzipioaren betetzea txosten eta ebidentzien bidez dokumentatzea - Printzipio horrekin lotutako errekerimendu edo auditoriei erantzutea.		- Verificar el uso de materiales y soluciones constructivas sostenibles - Supervisar que las actividades no generen impactos ambientales significativos - Documentar el cumplimiento del principio DNSH mediante informes y evidencias - Atender posibles requerimientos o auditorías relacionadas con este principio.
- Obraren segimenduari buruz, agindu honetan adierazitako txostenak eta frogagiriak egingo ditu: TMA/178/2022 Agindua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez oinarri arautzaile batzuk onartzen diren titulartasun publikoko eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko eta eskabideak norgehiagoka-prozedura bidez aurkezteko deialdia egiteko; eta hori guztia, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan (15. artikulua).		- Elaboración de informes necesarios y documentación justificativa, en relación al seguimiento de la obra, reflejada en la Orden TMA/178/2022 de 28 de febrero por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de ayudas para la rehabilitación de edificios de titularidad pública y la convocatoria para la presentación de solicitudes por el procedimiento de concurrencia competitiva en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (artículo 15)
- Laguntza emateko baldintzak modu planifikatuan betetzen lagunduko du: epeak kontrolatzea; behin betiko ebazpena eman ondoren aldizka aurkeztu beharreko egiaztagiriak kontrolatzea eta haien jarraipena egitea; informazioa, komunikazioa, publizitatea eta erakunde onuradunaren gainerako betebeharrak betetzen direla kontrolatzea.		- Prestar asistencia en el cumplimiento planificado de las condiciones y términos de la concesión de la ayuda: Control de plazos, control y seguimiento de la documentación acreditativa a entregar periódicamente tras la resolución definitiva, control del cumplimiento de la información, comunicación y publicidad, así como del resto de las obligaciones de la entidad beneficiaria.

- Obraren eraginkortasun energetikoa kontrolatuko du. Produktuak bere eraginkortasun energetiko altuenean eskuratzen direla bermatu, kontuan hartuta kostuetan izango duen eragina, bideragarritasun ekonomikoa eta egokitasun teknikoa, eta nahikoa gaitasun edukitzea. Bereziki, klimatizazioko eta ur bero sanitarioko ekipamenduak, ekipo ofimatikoak eta argiteriak erosteko orduan. Agindu honetako betebeharrak ere kontuan izan beharko dira: TMA/178/2022 Agindua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez oinarri arautzaile batzuk onartzen diren titulartasun publikoko eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko eta eskabideak norgehiagoka-prozedura bidez aurkezteko deialdia egiteko; eta hori guztia, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.	- Controlar la eficiencia energética de la obra. Garantizar la adquisición de los productos en su máximo grado de eficiencia energética, teniendo en cuenta su repercusión en los costes, su viabilidad económica y su idoneidad técnica, así como la existencia de capacidad suficiente. Especialmente a la hora de adquirir equipos de climatización, agua caliente sanitaria, equipos ofimáticos y equipos de alumbrado. Se deberán tener en cuenta, asimismo, las exigencias de la Orden TMA/178/2022 de 28 de febrero por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de ayudas para la rehabilitación de edificios de titularidad pública y la convocatoria para la presentación de solicitudes por el procedimiento de concurrencia competitiva en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
- Inpaktu akustikoaren Azterketaren kontrola eta segimendua egingo du.	- Control y seguimiento de Estudio de Impacto Acústico durante la obra.
- Hileroko ohiko ziurtagiriak egingo ditu, hurrengo hilabeteko lehen hamar egunetan; denboraldi horretan egindako obrari buruzko ziurtagiriak izango dira, eta hilabete bakoitzean egindako neurketaren eta balorazioaren arabera egingo dira, Udalak emandako karatula-ereduarekin. Ziurtagirietan, diruz lagundu daitezkeen partidak eta gainerakoak jasoko dira.	- Emitir las certificaciones mensuales ordinarias, en los primeros diez días siguientes al mes que correspondan, las certificaciones que comprendan la obra ejecutada durante dicho periodo de tiempo, según medición y valoración de la obra realizada en cada mensualidad con el modelo de carátula que aportará el Ayuntamiento. Las certificaciones contendrán las partidas subvencionables diferenciadas del resto.

- Hiru hilean behin: txosten bat egingo du, hiruhileko bakoitzean ziurtatutako zenbatekoaren laburpenarekin eta jarduketa motaren arabera xehatuta ("hiruhileko ziurtagiria").	- Trimestralmente: Emitir informe con el resumen y desglose por tipo de actuación del importe certificado cada trimestre "certificación trimestral".
- BIM betekizunak eranskinaren arabera	- Requisitos BIM según el anexo
- Obran izandako edozein gertakariren berri emango die udal teknikariei.	- Poner en conocimiento de los técnicos municipales cualquier incidencia de la obra.
- Harrera-akta aurkeztu baino hilabete lehenago, obraren egoerari buruzko txosten bat aurkeztuko du; hor adieraziko da gutxienez obra zein egunetan bukatzea aurreikusten den eta likidazioa zenbatekoa izatea espero den.	- Presentar, con un mes de antelación al acta de recepción, un informe la obra, al menos, respecto a la fecha prevista de terminación de la obra y liquidación estimada.
- Obraren Harrera Akta izenpetuko du, Udalak emango duen ereduaren arabera; benetan birgaitutako azaleraren m^2-ak zehaztuko ditu.	- Suscribir el Acta de Recepción de la obra conforme al modelo que aportará el Ayuntamiento, especificando los m2 de superficie efectivamente rehabilitada.
- Hala badagokio, obra-amaieraren eskritura izenpetuko du.	- Firmar, en su caso, la escritura de final de obra.
Obren harreraren ondoren	Tras la recepción de las obras
- Obren harrera egin eta gehienez ere hilabeteko epean, obra-amaierako ziurtagiria egingo da, kontratazio-organoak onar dezan, sektore publikoko kontratuen arloan indarrean dagoen legean jarritako epearen barruan.	- Elaboración de la certificación final de las obras en el plazo máximo de un mes a partir de la recepción de las obras, a fin de que sea aprobada por el órgano de contratación dentro del plazo establecido en la vigente Ley de Contratos del Sector Público.

- Obra zuzendaritzaren ziurtagiriak eta instalazioen agiriak egingo dira, eta horiek dagozkien erakundeetan tramitatu, baimendu daitezen.		- Elaboración de Certificados de dirección de obra y los documentos necesarios de las instalaciones y su tramitación ante los Organismos correspondientes para su autorización
- Eraikinaren azken ziurtagiri energetikoa egingo da, obraren harrera egiten denetik gehienez HILABETEKO epean; eta, ondoren, Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriaren Euskal Erregistroan tramitatu eta inskribatu. Hori guztia otsailaren 28ko TMA/178/2022 Aginduaren 6. artikuluan jasotakoa kontuan izanda, zeinaren bidez onartzen baitira titulartasun publikoko eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta lehia-prozeduraren bidez eskaerak aurkezteko deialdia, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.		- Elaboración de la certificación energética final del edificio y tramitación e inscripción en el Registro de Certificados de Eficiencia Energética del País Vasco, en el plazo máximo de 1 MES desde la recepción de obra. Todo ello de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 6 de la Orden TMA/178/2022 de 28 de febrero por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de ayudas para la rehabilitación de edificios de titularidad pública y la convocatoria para la presentación de solicitudes por el procedimiento de concurrencia competitiva en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
- Gauzatutako obraren azken memoria eta lortutako helburuak idatziko dira, obraren harrera egin ondoren eta 2026ko martxoaren 31a baino lehen, otsailaren 28ko TMA/178/2022 Aginduan xedatutakoaren arabera. Agindu horren bidez, titulartasun publikoko eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta eskabideak norgehiagoka-prozeduraren bidez aurkezteko deialdia onartzen dira, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.		- Redacción de la memoria final de la obra ejecutada y objetivos alcanzados, tras la recepción de la obra y antes del 31 de marzo de 2026, según lo dispuesto en la Orden TMA/178/2022 de 28 de febrero por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de ayudas para la rehabilitación de edificios de titularidad pública y la convocatoria para la presentación de solicitudes por el procedimiento de concurrencia competitiva en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.)

- DNSH printzipioaren autoebaluazio eta ebaluazio inprimakiak aurkeztuko dira, hemen xedatutakoaren arabera: TMA/178/2022 Agindua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez oinarri arautzaile batzuk onartzen diren titulartasun publikoko eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko eta eskabideak norgehiagoka-prozedura bidez aurkezteko deialdia egiteko; eta hori guztia, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.	- Redacción de formularios de autoevaluación y evaluación del principio del DNSH de acuerdo con lo dispuesto en la Orden TMA/178/2022 de 28 de febrero por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de ayudas para la rehabilitación de edificios de titularidad pública y la convocatoria para la presentación de solicitudes por el procedimiento de concurrencia competitiva en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.)
- Otsailaren 28ko TMA/178/2022 Aginduaren 15.2. artikuluko q) atalean jasotakoa beteko da (TMA/178/2022 Agindua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez oinarri arautzaile batzuk onartzen diren titulartasun publikoko eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko eta eskabideak norgehiagoka-prozedura bidez aurkezteko deialdia egiteko; eta hori guztia, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan).	- Cumplir lo dispuesto en apartado q) del artículo 15.2. de la Orden TMA/178/2022 de 28 de febrero por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de ayudas para la rehabilitación de edificios de titularidad pública y la convocatoria para la presentación de solicitudes por el procedimiento de concurrencia competitiva en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.)
- Egindako obrari buruzko dokumentazioa prestatu eta izenpetuko da, hala badagokio, nahitaezkoak diren ikus-onespenekin.	- Elaborar y suscribir la documentación de la obra ejecutada, con los visados que en su caso fueran preceptivos.
- Agindu honetan adierazitako frogagiriak egingo dira: TMA/178/2022 Agindua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez oinarri arautzaile batzuk onartzen diren titulartasun publikoko eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko eta eskabideak norgehiagoka-prozedura bidez aurkezteko deialdia egiteko; eta	- Elaboración de la documentación justificativa reflejada en la Orden TMA/178/2022 de 28 de febrero por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de ayudas para la rehabilitación de edificios de titularidad pública y la convocatoria para la presentación de solicitudes por el

hori guztia, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.		procedimiento de concurrencia competitiva en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
- Obra-amaierako dokumentazioa idatziko da, gehienez ere hilabete bateko epean; hor jasoko da obrei buruzko dokumentazio osoa (benetan egin diren bezala adierazita) eta "benetan egindako obrari buruz" kontratistak ematen dituen datuak. Dokumentazio horrek kontratazio-organoaren oniritzia eduki behar du. Gutxienez, dokumentu hauek edukiko ditu:		- En el plazo máximo de un mes, redacción de Documentación Final de Obra, recogiendo la documentación completa de las obras, tal y como han sido realmente ejecutadas, junto con los datos que el Contratista facilitará sobre la obra "según construida". Dicha documentación deberá contar con el visto bueno del órgano de contratación. Constará al menos, de los siguientes documentos:
OBRAKO AZKEN PROIEKTUA eta, horrekin batera, obran zehar sortutako aldaketak, halakorik izan bada. Gauzatze-proiektuaren zehaztasun eta eduki berberarekin idatziko da, eta, hartara, dokumentuan sartuta geratuko da bai derrigorrez bete beharreko araudiaren justifikazioa bai egindako aldaketek eragin dituzten aldakuntzak, zeinak kontuan hartu behar diren eraikinaren bizitzan edozein esku-hartze egin aurretik.		PROYECTO FINAL DE OBRA con la incorporación, en su caso, de las modificaciones surgidas durante la obra. Deberá redactarse con el mismo detalle y contenido que el proyecto de ejecución, de manera que en el documento quede incluida la justificación de la normativa de obligado cumplimiento, con los cambios que supongan las modificaciones que se hubiesen realizado, y que deban tenerse en cuenta durante la vida útil del edificio antes cualquier intervención o actuación.
- Harrera Aktaren kopia - AGINDUEN ETA BISITEN LIBURUAren eta INTZIDENTZIA LIBURUAren kopia - Obrako bileren akten kopia - Obra-amaierako ziurtagiria - Egindako obren azken likidazioa - Eraikuntza-prozesuan zehar parte hartu duten agenteak identifikatzeko zerrenda bat (EAL), haiekin harremanetan jartzeko datu eta guzti. - Azpikontratazioen liburuaren kopia		- Copia del Acta de recepción - Copia del Libro de Órdenes y Visitas y del Libro de Incidencias. - Copia de Actas de las reuniones de obra - Certificado final de obra - Liquidación final de las obras ejecutadas - Relación identificativa de los agentes que han intervenido durante el proceso de edificación (LOE), con datos de contacto de los mismos. - Copia del libro de subcontratación

- Obra berriaren adierazpenerako deskribapena, hala badagokio. - Jarduerako ZT-2 Dokumentu - Irisgarritasun araudiak betetzen direla egiaztatzen duen ziurtagiria - Suteen aurkako araudiak betetzen direla egiaztatzen duen ziurtagiria - Jardueran sortutako soinu-emisioen mailak justifikatzen dituen txostena - Hondakinen Kudeaketari buruzko dokumentazioa - Ingurumen jarraipenari buruzko dokumentazioa - Kalitate Kontrolaren plana - Erabilera eta mantentze-lanetarako jarraibideak - Jarritako INSTALAZIOEN DOKUMENTAZIOA (termikoa eta ur bero sanitarioa, aireztapena, elektrikoa, telekomunikazioak, segurtasuna, iturgintza eta saneamendua, gas-hartzailea, suteen babesa…). "*As built*" planoak, legeztatze proiektuak, buletinak, abiaraztea, OCA ikuskapenak, eskuliburu teknikoa eta erabilerakoa etab. - BIM modeloa eranskinaren arabera - Ingurumen-dokumentazioa: bukatutako eraikinaren ziurtagiri energetikoa. - Erabilitako materialen zerrenda (etxea, modeloa, etab.), eta horien hornitzaileak identifikatzeko zerrenda, haiekin harremanetan jartzeko datu eta guzti. - Obran parte hartu duten azpikontraten zerrenda, horiekin harremanetan jartzeko datu eta guzti.	- Descripción para la declaración de obra nueva, en caso que proceda. - Documento ZT-2 de la actividad - Certificado acreditativo del cumplimiento de las normativas de accesibilidad - Certificado acreditativo del cumplimiento de la normativa contra incendios - Informe justificativo de los niveles de emisión sonora generados en la actividad - Documentación de la Gestión de Residuos - Documentación del seguimiento ambiental - Libro de control de calidad - Instrucciones de uso y mantenimiento - DOCUMENTACIÓN DE LAS INSTALACIONES que procedan (Térmicas y ACS, Ventilación, Eléctrica, Telecomunicaciones, Seguridad, Fontanería y saneamiento, Receptora de gas, Protección contra incendios…) Planos "*as built*", proyectos de legalización, boletines de las instalaciones, puesta en marcha, inspección OCA, manual técnico y de uso, etc. - Modelo BIM según anexo - Documentación ambiental: certificado energético del edificio terminado - Relación de materiales utilizados (casa, modelo, etc.) y relación identificativa de los suministradores de los mismos, con datos de contacto de los mismos. - Relación identificativa de las subcontratas participantes en la obra, con datos de contacto de los mismos. - Documentación gráfica (fotos, videos) del proceso constructivo, y estado final.

- Eraikuntza-prozesuaren dokumentazio grafikoa (argazkiak, bideoak) eta azken egoera.		
Proiektatutakotik aldaketak egin badira, hartutako irtenbideak teknikoki justifikatu beharko dira, araudi tekniko aplikagarriak eskatutako zehaztapenen arabera, eta organo eskudunen oniritzia edo adostasuna edukiko dute.		En caso de modificaciones respecto a los proyectado, deberán quedar justificadas técnicamente las soluciones adoptadas de acuerdo con las especificaciones requeridas por la normativa técnica aplicable y contar con el visto bueno o aceptación de los órganos competentes.
Obra Amaierako dokumentazioa Udalean entregatuko da (erregistro elektroniko bidez), euskarri digitalean, *.pdf formatuan eta Zarauzko Udalak erabiltzen dituen programa eta bertsio informatikoetan: testu idatzia Word-ean (.doc); planoak Autocad-en (*.dwg), plano bakoitza marrazki-fitxategi bat izango da (ploteo fitxategia sartuta); eta aurrekontuak Presto programaren *.bc3 formatuan.		La Documentación Final de Obra será entregada al Ayuntamiento (por registro electrónico) en soporte digital, en formato *.pdf así como en formato BIM 3D modelo tridimensional, y en los programas y versiones informáticas utilizadas por el Ayuntamiento de Zarautz: el texto escrito en Word *.doc; los planos en Autocad *.dwg, cada plano se corresponderá con un fichero de dibujo (se incluirá el fichero de ploteo) y los presupuestos en formato *.bc3 del programa Presto.
Gutxienez honako dokumentu hauek bi hizkuntzetan egongo dira (euskara lehenetsita): memoria, karatulak eta planoak.		Estarán en bilingüe y priorizando el euskera los siguientes documentos como mínimo: memoria, carátulas y planos.
Kontratu hau gauzatzean egiten diren azterketa eta dokumentu guztiak Zarauzko Udalaren jabetzakoak izango dira, kontratuaren edozein fasetan; eta, hortaz, egoki iruditzen bazaio, horien zati bat edo osoa erreproduzitu, argitaratu eta zabaldu ahalko du, eta adjudikaziodunak ezingo du horren aurka egin bere egile-eskubideak alegatuta.		Todos los estudios y documentos elaborados en la ejecución del presente contrato serán propiedad, en cualquiera de sus fases, del Ayuntamiento de Zarautz, el cual podrá reproducirlos, publicarlos y divulgarlos parcial o totalmente, en la medida en que crea conveniente, sin que pueda oponerse a ello alegando sus derechos de autor.
Obraren berme epea		Periodo de garantía de la obra
- Obren egoerari buruz beharrezkoak diren txostenak idatziko dira, baldin eta obra-kontratuaren berme-epean		- Redactar informes que pudieran ser necesarios, sobre el estado de las obras, por posibles defectos de ejecución o por

gauzatze-akatsak edo ezkutukoak detektatzen badira.	vicios ocultos que se detecten durante el periodo de garantía del contrato de ejecución de las obras.
- Obra-kontratuaren berme-epea bete aurreko hamabost eguneko epean, obrak nola dauden ikusi eta obren egoerari buruzko txostena idatziko da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 243. artikuluan adierazitako moduan.	- Redactar, dentro del plazo de quince días anteriores al cumplimiento del plazo de garantía del contrato de obra, un informe sobre el estado de las obras tras revisión de las mismas, en los términos señalados en el artículo 243 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, del 8 noviembre.
5.- KOMUNIKAZIOA	**5.- COMUNICACIÓN**
Obra zuzentzeko laguntza teknikoko zerbitzua ematen den bitartean, komunikazio eraginkorra oso garrantzitsua da gardentasunerako eta herritarren parte-hartzerako. Beraz, enpresa adjudikaziodunak kontuan hartu beharko du dimentsio hori, eta udal-komunikazioaren arduradunekin koordinatuta jardun beharko du.	Durante la prestación del servicio de asistencia técnica para la Dirección de Obra, la comunicación efectiva cobra especial importancia tanto para la transparencia como para la participación ciudadana. Por lo tanto, la empresa adjudicataria deberá tener en cuenta esta dimensión y habrá de actuar coordinadamente con los responsables de la comunicación municipal.
Ondorioz, enpresa adjudikaziodunak behar den informazioa emango du, eskatzen zaion guztietan, komunikazioko elementuak eta edukiak idazteko (prentsa-oharrak, liburuxkak); komunikazio horien bidez, obren gauzatze prozesuari buruzko informazioa emango zaie erakundeei eta gizarteari (komunikabideen, udal-webguneen eta antzekoen bidez).	Como consecuencia la empresa adjudicataria aportará, cuantas veces se le requiera, la información necesaria para la redacción de elementos y contenidos comunicativos (notas de prensa, folletos…) que posibiliten la visualización institucional y social del proceso de ejecución de las obras, a través de los medios de comunicación, webs municipales y similares.